# Bestelako Xedapenak

**JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA**

**3002**

AGINDUA, 2009ko maiatzaren 4koa, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuarena, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituena.

Azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuaren helburua honako hau da: gizarte-bazterketaren aurkako eta gizarteratu eta laneratzeko politika publikoen esparruan, laneratzeko enpresen erregimen juridikoa arautzea, lanmerkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratu eta laneratzeko agente aktibo gisa.

Laneratzeko enpresek gizarte-laguntzako, jarraipeneko eta laguntasuneko esku-hartze jakin batzuk eskaintzen dituzte. Esku-hartze horien bidez, gizarte-arloko eta lan-arloko ohiturak lortzea errazten da, eta horien bidez parte-hartzaileen enplegagarritasuna hobetzen denez, ezinbestekoak dira lan-merkatuan sartzeko.

2007-2009ko Gizarteratzeko Erakunde arteko II. Planean enpleguko politika aktiboak garatzearen aldeko apustu sendoa egin da, bereziki Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren edo Gizarte Larrialdiko Laguntzaren moduko prestazio ekonomikoak jasotzen dituzten eta laneratu daitezkeen pertsonetara bideratuak.

Duela gutxi, Eusko Legebiltzarrak Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Legea onartu zuen; lege horren xedea Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistema arautzea da, eta, esparru horren barruan, prestazio ekonomikoak eta beharrezko diren bitartekoak jasotzeko eskubidea finkatzea, herritar izateak dakartzan eskubide sozialak benetan gauzatzeko orduan behar beste baliabide pertsonal, sozial eta ekonomikorik ez dutenei laguntzeko, bai bazterketa-arriskuari aurre egiten, bai bazterketa pertsonala, soziala eta laborala dakartzaten egoerak arintzen, bai gizarteratzeko zeregina bideratzen.

Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren barruan, hauexek dira gizarteratzen eta laneratzen laguntzeko bitartekoak:

a) Gizarteratzeko hitzarmena, gizarteratzeko nahiz laneratzeko beharrezko ekintzen multzoa antolatzeko oinarrizko tresna da, eta laneratzeko prestakuntzan eta gaikuntzan oinarrituko da bereziki.

b) Esku-hartzeko neurri bereziak. Gizarte-babeseko hainbat alorretako programa, zerbitzu edo zentro izan daitezke, bereziki, gizarte-zerbitzuek, enplegu-zerbitzu-

# Otras Disposiciones

**DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL**

**3002**

ORDEN de 4 de mayo de 2009, del Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social, por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción.

El Decreto 182/2008, de 11 de noviembre tiene por objeto regular, en el marco de las políticas públicas contra la exclusión social y de inclusión sociolaboral, el régimen jurídico de las empresas de inserción como agentes activos de la inserción sociolaboral de personas con especiales dificultades de acceso al mercado laboral.

Las empresas de inserción proporcionan una serie de intervenciones de apoyo, seguimiento y acompañamiento social que facilitan la adquisición de hábitos sociales y de trabajo, que mejoran la empleabilidad de las personas participantes y que resultan indispensables para su inclusión en el mercado laboral.

En el II Plan Interinstitucional de Inclusión Social 2007-2009 se ha apostado decididamente por el desarrollo de políticas activas de empleo particularmente orientadas a las personas perceptoras de prestaciones económicas, como la Renta de Garantía de Ingresos y las Ayudas de Emergencia Social, susceptibles de una incorporación laboral.

Recientemente el Parlamento Vasco ha aprobado la Ley 18/2008, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, que tiene por objeto regular el Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inclusión Social y, en su marco, el derecho a las prestaciones económicas y a los instrumentos orientados a prevenir el riesgo de exclusión, a paliar situaciones de exclusión personal, social y laboral, y a facilitar la inclusión de quienes carezcan de los recursos personales, sociales o económicos suficientes para el ejercicio efectivo de los derechos sociales de ciudadanía.

En el marco del Sistema Vasco de Garantía de Ingresos e Inclusión Social tienen la consideración de instrumentos orientados a la inclusión social y laboral los siguientes:

a) El convenio de inclusión, que se configurará como el dispositivo básico de articulación del conjunto de acciones de diferente naturaleza que se estimen necesarias para la inclusión social y laboral, con especial énfasis en la formación y preparación para la inclusión laboral.

b) Las medidas específicas de intervención, ya sean programas, servicios o centros, organizados por los diferentes ámbitos de la protección social, en particular

ek, osasun-zerbitzuek eta etxebizitza-zerbitzuek antolatutakoak, eta, konbinatuta, gizarteratzeko eta laneratzeko hitzarmenean aplika daitezke.

Diru-Sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko 18/2008 Lege horretan adierazten da euskal administrazio publikoek, prestakuntza eta enplegu-arloetan dituzten eskumenen esparruan, laneratzen laguntzeko neurriak arbitratu beharko dituztela pertsona edo talde jakin batzuentzat, hain zuzen ere, haien ezaugarriak direla-eta lan-merkatuan sartzerik ez dutenentzat edo sartzeko zailtasunak dituztenentzat. Neurri horietan esanbidez biltzen da laneratzeko enpresa horiek sortzen eta mantentzen laguntzea.

Agindu honen xedea hain zuzen ere, honako hau da: enpresa mota horri laguntza-formula batzuk, enpresen ezaugarri eta premia berezietara egokitutakoak, ematea, bereziki enpresa horietarako diseinatutako laguntza ekonomiko batzuen oinarri arautzaileak ezarriz. Horien barruan diru-laguntzak aurreikusten dira, gizarteratze-enpresak sortzen dituzten erakunde sustatzaileentzat eta gizarteratze-enpresentzat, iraun ahal izateko.

Bitarteko horiekin, Gizarteratze eta Familia Sailburuordetzak gizarteratzeko eta laneratzeko modalitate berezi horren hedadura sustatu nahi du. Modalitate horretan, pertsona bat (besteren konturako langile gisa nahiz bazkide langile gisa edo lan-bazkide gisa) lan-kontratu bidez laneratzen da. Kontratu hori laneratzeko hitzarmen bat sinatzearen ondoriozkoa da.

Horretaz gain, sail honek honako helburu hau ere badu: gizarteratzeko eta laneratzeko politika honen diseinuari gaur egun dituen egiturazko elementuekin mantentzea ondorengo urteetan ere; horregatik, iruditu zaigu eraginkorragoa dela agindu honen indarraldia mugagabea izatea.

Arau hau, diru-laguntzak emateko dena, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 10.12 artikuluak, gizarte-laguntzaren alorrean, Euskal Autonomia Erkidegoari esleitzen dion eskumen esklusiboaren babesean eman da.

Hori guztia dela-eta, Gizarteratzeko Erakunde arteko Batzordeak eta Gizarteratzeko Euskal Kontseiluak esateko dutena entzun ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

## I. KAPITULUA
## XEDAPEN OROKORRAK

***1. artikulua.***– Xedea eta helburua.

Agindu honen xedea honako hau da: Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak ondoren azalduko diren helburuekin emango dituen laguntzak arautzea. Adierazitako helburuak honako hauek dira:

por los servicios sociales, los servicios de empleo, los servicios de salud, y los servicios de vivienda, susceptibles de aplicarse, de forma combinada, en el marco de un convenio de inclusión.

En la citada Ley 18/2008, para la Garantía de Ingresos y para la Inclusión Social, se indica que, en el ámbito de sus respectivas competencias en materia de formación y empleo, las administraciones públicas vascas deberán arbitrar medidas orientadas a favorecer y facilitar la incorporación al mercado laboral de personas o grupos que, por sus características, no puedan o tengan dificultades para acceder al mismo en condiciones de igualdad. En esas medidas se incluye expresamente el apoyo a la creación y mantenimiento de las empresas de inserción.

El objeto de la presente Orden es precisamente ofrecer a este tipo de empresas unas fórmulas de apoyo adaptadas a sus particulares características y necesidades, estableciendo las bases reguladoras de unas ayudas económicas específicamente diseñadas para ellas. En su marco, se prevén subvenciones destinadas a las entidades promotoras para la creación de empresas de inserción y subvenciones dirigidas a las propias empresas de inserción para su sostenimiento.

Con estos instrumentos, la Viceconsejería de Inserción Social y de Familia pretende fomentar la extensión de esta particular modalidad de inserción socio-laboral, en la que la incorporación de una persona a una empresa de inserción, bien como trabajador por cuenta ajena, bien como socio trabajador o socio de trabajo, se instrumenta mediante un contrato de trabajo que deriva de la previa suscripción de un convenio de inserción.

Además, es objetivo de este Departamento mantener el diseño de esta política de inserción socio-laboral con sus actuales elementos estructurales durante los próximos años, por lo que se ha estimado más operativo mantener la vigencia de esta Orden con carácter indefinido.

La presente norma, de carácter subvencional, se dicta al amparo de la competencia exclusiva que en materia de asistencia social atribuye el artículo 10.12 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco a la Comunidad Autónoma del País Vasco.

En su virtud, oídas la Comisión Interinstitucional para la Inclusión y el Consejo Vasco para la Inclusión Social,

DISPONGO:

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

***Artículo 1***.– Objeto y finalidad.

El objeto de la presente Orden es la regulación de las ayudas que el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco otorgará con los siguientes fines:

a) Laneratzeko enpresak sortzeko aukera sustatzea.

b) Laneratzeko enpresen iraunkortasuna babestea.

***2. artikulua**.*– Eremua.

Agindu honetan ezarritako laguntzak lortu ahal izateko, diruz lagun daitezkeen jardunak Euskal Autonomia Erkidegoko lantokietakoak izango dira, kontuan hartu gabe laguntzen onuradunak diren irabazi-asmorik gabeko erakunde sustatzaile pribatuen eta/edo gizarteratzeko enpresen egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan dagoen edo ez.

II. KAPITULUA
LANERATZEKO ENPRESAK SORTZERA BIDERATUTAKO LAGUNTZAK

***3. artikulua**.*– Erakunde onuradunak.

Honako hauek eskuratu ahal izango dituzte laneratzeko enpresak sortzeko laguntzak:

a) laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen, enpresa horietan sartzeko prozedura ezartzen duen eta laneratzeko enpresen erregistroa sortzen duen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuaren 7. artikuluan azaltzen diren irabazi-asmorik gabeko erakunde sustatzaile pribatuek.

b) tokiko erakundeek.

c) tokiko edo eskualdeko garapen-agentziek.

***4. artikulua**.*– Diru-laguntza jaso dezaketen jardunak.

1.– Laneratzeko enpresak sortzeko laguntzak merkatu-azterlanak egiteko izango dira, eta azterlan horiei esker jakin ahal izango da enpresa horiek sortzea bideragarria den ala ez. Diru-laguntza horrek azterlanen ehuneko berrogeita hamar (% 50) finantzatuko du, sei mila (6.000) euro gehienez ere.

2.– Diru-laguntza hori ematen bada, erakunde onuradunak merkatu-azterlana egin beharko du diru-laguntza ematen den aurrekontu-ekitaldiaren barruan, eta, proiektua egokitzat hartzen bada, laneratzeko enpresa sortu beharko du urtebeteko epean, merkatu-azterlana amaitzen denetik zenbatzen hasita.

III. KAPITULUA
LANERATZEKO ENPRESAK MANTENTZERA BIDERATUTAKO LAGUNTZAK

***5. artikulua**.*– Erakunde onuradunak.

Laneratzeko enpresen kalifikazioa arautzen duen, enpresa horietan sartzeko prozedura ezartzen duen eta laneratzeko enpresen erregistroa sortzen duen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuaren 4. artikuluan definitzen diren laneratzeko enpresek baliatu ahal izango dituzte kapitulu honetan arautzen diren laguntzak.

a) Promover la creación de empresas de inserción.

b) Apoyar el sostenimiento de las empresas de inserción.

***Artículo 2**.*– Ámbito.

Para poder acogerse a las ayudas establecidas en la presente Orden, las actuaciones subvencionables deberán ir referidas a centros de trabajo sitos en la Comunidad Autónoma del País Vasco, con independencia de que las entidades promotoras privadas sin ánimo de lucro y/o las empresas de inserción que sean beneficiarias de las ayudas tengan o no su sede social en el País Vasco.

CAPÍTULO II
AYUDAS DESTINADAS A LA CREACIÓN DE EMPRESAS DE INSERCIÓN

***Artículo 3**.*– Entidades beneficiarias.

Podrán acogerse a las ayudas destinadas a la creación de empresas de inserción:

a) las entidades promotoras privadas sin ánimo de lucro a las que se refiere el artículo 7 del Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la calificación de empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro.

b) las entidades locales.

c) las agencias de desarrollo local o comarcal.

***Artículo 4**.*– Actuaciones subvencionables.

1.– Las ayudas destinadas a la creación de empresas de inserción consistirán en subvenciones para la realización de estudios de mercado que contemplen la viabilidad de su creación. Esta subvención financiará hasta el cincuenta por ciento (50%) del coste de los mismos, con un límite máximo de seis mil (6.000) euros.

2.– La concesión de esta subvención obliga a la entidad beneficiaria a realizar el estudio de mercado dentro del ejercicio presupuestario en el que se concede y, si resulta viable el proyecto, a crear la empresa de inserción en el plazo de un año a contar desde la fecha de finalización del estudio de mercado.

CAPÍTULO III
AYUDAS DESTINADAS AL SOSTENIMIENTO DE LAS EMPRESAS DE INSERCIÓN

***Artículo 5**.*– Entidades beneficiarias.

Podrán acogerse a las ayudas reguladas en el presente Capítulo las empresas de inserción definidas en el artículo se refiere el artículo 4 del Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la calificación de empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro.

***6. artikulua***.– Diruz laguntzekoak diren jardunak.

Honako jardun hauek izan daitezke laneratzeko enpresen iraunkortasunera bideratutako laguntzen xede:

1.– Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzera edo mantentzera bideratutako aktibo finkoetan egindako inbertsioak.

2.– Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea.

3.– Produkzioari laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea.

4.– Laneratzen laguntzeko ekintzetan espezializatutako teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea.

5.– Laguntza teknikoa:

a) Merkatu-azterlanak egitea, merkatu berriak irekitzeko edo enpresa-jarduera berriz bideratzeko.

b) Kontabilitate-auditoretzak eta kudeaketa-auditoretzak egitea.

6.– Prestakuntza.

***7. artikulua***.– Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzera edo mantentzera bideratutako aktibo finkoetan egindako inbertsioak.

1.– Aktibo finkoetan egindako inbertsioak, laneratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzera edo mantentzera bideratuak. Inbertsio horien guztizko kostuaren ehuneko laurogeita bost (% 85) diruz lagundu ahal izango da gehienez, eta sortutako edo mantendutako lanpostu bakoitzeko gehieneko kopurua hamabi mila (12.000) eurokoa izango da.

2.– Nolanahi ere, aktibo finkoek zuzeneko lotura izan beharko dute laneratzeko enpresak egiten duen jarduera nagusiarekin. Era berean, aktibo finko horiek hiru urteko gutxieneko amortizazioaldia ezarrita eduki beharko dute, eta gutxienez denbora horretan enpresaren aktiboan egon beharko dute.

3.– Diru-laguntza hori ematen bada, laneratzeko enpresek diru-laguntza jaso duten aurrekontu-ekitaldian egin beharko dituzte diruz lagundutako inbertsioak.

***8. artikulua***.– Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzea eta mantentzea.

1.– Laneratzeko enpresek sortutako edo mantendutako lanpostu bakoitzeko diru-laguntza bat eskuratu ahal izango dute eta diru-laguntza horren urteko zenbatekoa hamabi mila eta hirurehun (12.300) eurokoa izango da. Enpresak garatutako jardueren izaera dela-eta sortu edo mantendutako lanpostuak denbora partzialekoak badira, diru-laguntzaren zenbatekoa proportzio berean murriztuko da.

***Artículo 6***.– Actuaciones subvencionables.

Podrán ser objeto de las ayudas destinadas al sostenimiento de las empresas de inserción las siguientes actuaciones:

1.– Inversiones en activos fijos orientadas a la creación o al mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción.

2.– La creación y el mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción.

3.– La creación y el mantenimiento de puestos de trabajo destinados a técnicos de acompañamiento a la producción.

4.– La creación y el mantenimiento de puestos de trabajo destinados a técnicos especializados en acciones de acompañamiento a la inserción.

5.– Asistencia técnica:

a) Realización de estudios de mercado con vistas a la apertura de nuevos mercados o a la reorientación de la actividad empresarial.

b) Realización de auditorias contables y de gestión.

6.– Formación.

***Artículo 7***.– Inversiones en activos fijos orientadas a la creación o al mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción.

1.– Las inversiones en activos fijos orientadas a la creación o al mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción, podrán ser subvencionadas hasta el ochenta y cinco por ciento (85%) de su coste total, con un límite máximo de doce mil (12.000) euros por puesto de trabajo creado o mantenido.

2.– En todo caso, los activos fijos deberán estar directamente relacionados con la actividad principal desarrollada por la empresa de inserción. Así mismo estos activos fijos deberán tener establecido un período mínimo de amortización de tres años, debiendo permanecer, como mínimo, ese mismo tiempo en el activo de la empresa.

3.– La concesión de esta subvención obliga a la empresa de inserción a realizar las inversiones subvencionadas dentro del ejercicio presupuestario en el que se concede.

***Artículo 8***.– Creación y mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción.

1.– Las empresas de inserción podrán acceder a una subvención por puesto de trabajo creado y mantenido, con un importe anual de doce mil trescientos (12.300) euros. Si, en razón de la naturaleza de las actividades desarrolladas por la empresa, los puestos de trabajo creados o mantenidos fueran a tiempo parcial, el importe de la subvención se verá reducido en proporción al mismo.

2.– Diru-laguntza horren zenbatekoa ehuneko bost (% 5) igoko da honako kasu hauetan:

a) Lanpostua betetzen duen langilea emakumea bada.

b) Lanpostua beteko duen langileak aurreko hiru hilabeteetan bukatu badu Auzolan programan izandako partaidetza. Programa hori uztailaren 30eko 199/2002 Dekretuan araututa dago.

3.– Diru-laguntza ematen bada, laneratzeko enpresak honako betebehar hauek izango ditu:

a) Sortutako lanpostuak Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik enpresara igorritako pertsonek beteko dituzte, gizarteratze-hitzarmen indibidualen esparruan eta azken hitzarmen honetan aurreikusitako aldian, eta laneratzeko enpresen kalifikazioa arautu, enpresotan sartzeko prozedura ezarri eta laneratzeko enpresen erregistroa sortzen duen azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuaren 17. artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Trebetasun soziolaboralen eskuratzea eta lan-ingurune erabat normalizatu batera bideratzea errazteko, gizarteratzeko hitzarmen bakoitzean aurreikusitako aldia ez da urtebetetik beherakoa eta hiru urtetik gorakoa izango.

b) Lanpostuko iraunaldia dagokion laneratzeko hitzarmenean aurreikusitako aldia bukatu aurretik amaitzen bada, gizarteratze-prozesuan dagoen emakume langileari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, enpresak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek bidalitako langile batekin bete beharko du lanpostua; nolanahi ere, zirkunstantzia horren berri eman beharko dio Gizarteratzeko Zuzendaritzari.

c) Lanpostuko iraunaldia dagokion laneratzeko hitzarmenean aurreikusitako aldia bukatu aurretik amaitzen bada, enpresari egotz dakizkiokeen arrazoiak direla medio, eta arrazoi objektiboak edo produkzio-arrazoiak direla medio, enpresak diru-laguntzaren zati bat itzuli behar du, kontratua betetzeko geratzen den denborarekin proportzionala den zatia.

***9. artikulua.***– Produkzioari laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea.

1.– Laneratzeko enpresek produkzioari laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortu eta mantentzeko diru-laguntza bat eskuratu ahal izango dute. Diru-laguntza horren urteko zenbatekoa sortu eta mantendutako lanpostu bakoitzeko mila eta zortziehun (1.800) eurokoa izango da.

2.– Enpresak garatutako jardueren izaera dela-eta sortu edo mantendutako lanpostuak denbora partzialekoak badira, diru-laguntzaren zenbatekoa proportzio berean murriztuko da.

***10. artikulua***.– Laneratzen laguntzeko ekintzetan espezializatutako teknikarientzako lanpostuak sortzea eta mantentzea.

2.– El importe de esta subvención se incrementará en un cinco por ciento (5%) en los siguientes supuestos:

a) En el caso de que la persona que ocupe el puesto de trabajo sea mujer.

b) En el caso de que la persona que ocupe el puesto de trabajo haya finalizado en los tres meses inmediatamente anteriores su participación en el programa Auzolan, regulado en el Decreto 199/2002, de 30 de julio.

3.– La concesión de la subvención conlleva para la empresa de inserción las siguientes obligaciones:

a) Los puestos de trabajo creados deberán ser cubiertos por personas remitidas a la empresa desde el Servicio Social de Base en el marco de los convenios individuales de inserción y durante el periodo previsto en este último, en los términos previstos en el artículo 17 del Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, por el que se regula la calificación de empresas de inserción, se establece el procedimiento de acceso a las mismas y su registro. A fin de facilitar la adquisición de habilidades socio-laborales y el tránsito hacia un medio laboral totalmente normalizado, el periodo previsto en cada convenio de inserción no podrá ser inferior a un año ni superior a tres.

b) En los casos en los que la permanencia en el puesto de trabajo cesara antes de finalizar el periodo previsto en el convenio de inserción correspondiente por razones imputables a la persona trabajadora en proceso de inserción, la empresa deberá ocupar el puesto con otro trabajador remitido por el Servicio Social de Base en los términos indicados en el párrafo anterior, informando de dicha circunstancia a la Dirección de Inserción Social.

c) En los casos en los que la permanencia en el puesto cesara antes de finalizar el periodo previsto en el convenio de inserción correspondiente por razones imputables a la empresa, por razones objetivas o de producción, ésta procederá a la devolución de la parte de la subvención que sea proporcional al tiempo de contrato que reste por cumplir.

***Artículo 9.***– Creación y mantenimiento de puestos de trabajo destinados a técnicos de acompañamiento a la producción.

1.– Las empresas de inserción podrán acceder a una subvención para la creación y el mantenimiento de puestos de trabajo destinados a técnicos de acompañamiento a la producción. Esta subvención tendrá un importe anual de mil ochocientos euros (1.800) por puesto de trabajo creado y mantenido.

2.– Si, en razón de la naturaleza de las actividades desarrolladas por la empresa, los puestos de trabajo creados o mantenidos fueran a tiempo parcial, el importe de la subvención se verá reducido en proporción al mismo.

***Artículo 10.***– Creación y mantenimiento de puestos de trabajo destinados a técnicos especializados en acciones de acompañamiento a la inserción.

1.– Laneratzeko enpresek produkzioari laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortu eta mantentzeko diru-laguntza bat eskuratu ahal izango dute. Diru-laguntza horren urteko zenbatekoa sortu eta mantendutako lanpostu bakoitzeko mila eta ehun (1.100) eurokoa izango da.

2.– Enpresak garatutako jardueren izaera dela-eta sortu edo mantendutako lanpostuak denbora partzialekoak badira, diru-laguntzaren zenbatekoa proportzio berean murriztuko da.

***11. artikulua.***– Laguntza teknikoa.

Laneratzeko enpresek honako diru-laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte laguntza teknikoaren kontzeptupean:

a) Merkatu-azterlanak egitea, merkatu berriak irekitzeko edo enpresa-jarduera berriz bideratzeko. Diru-laguntza horrek azterlanen ehuneko berrogeita hamar (% 50) finantzatuko du, sei mila (6.000) euro gehienez ere.

Diru-laguntza hori ematen bada, enpresak merkatu-azterlana egin beharko du diru-laguntza hori ematen den aurrekontu-ekitaldian.

b) Kontabilitate-auditoretzak eta kudeaketa-auditoretzak egiteko diru-laguntza. Diru-laguntza hori mila berrehun eta berrogeita hamar (1.250) euroko gehieneko mugarekin emango da eta bere helburua laneratzeko enpresen finantza-kudeaketaren gardentasuna sustatzea eta azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuari jarraiki kontuen auditoretza urtero egiteko betebeharra ez duten enpresak gutxienez hiru urtetik behin egitera bultzatzea da. Aipatutako dekretuaren 10.m) artikuluari jarraiki urtero auditoretza bat egiteko betebeharra duten enpresak ezin izango dira diru-laguntza modalitate honen onuradunak izan.

Diru-laguntza hori ematen bada, laneratzeko enpresak kontabilitate- eta kudeaketa-auditoretzak egin beharko ditu diru-laguntza hori ematen den aurrekontu-ekitaldian.

***12. artikulua.***– Prestakuntza.

1.– Prestakuntza gisa ematen diren diru-laguntzek gizarteratze-prozesuan dagoen langileak egiten duen ikastaroaren matrikula-gastuen ehuneko laurogei (% 80) estaliko dute gehienez.

2.– Diru-laguntza horiek, halaber, gizarteratze-prozesuan dauden eta ikastaroan parte hartzen duten pertsonen bizilekua dagoen herritik ikastaroa ematen den lekurainoko lekualdatzeak eragindako desplazamendu-dietak estaliko dituzte, betiere bi lekuen arteko distantzia (joan-etorrikoa) 10 kilometrotik gorakoa bada. Era berean, garraio publikoa erabiltzeagatik sortutako gastuak ordainduko dira eta, garraio publikoa erabili ezin bada eta ibilgailu propioa erabiltzen bada, kilometro

1.– Las empresas de inserción podrán acceder a una subvención para la creación y el mantenimiento de puestos de trabajo destinados a técnicos de acompañamiento a la inserción. Esta subvención tendrá un importe anual de mil cien (1.100) euros por puesto de trabajo creado y mantenido.

2.– Si, en razón de la naturaleza de las actividades desarrolladas por la empresa, los puestos de trabajo creados o mantenidos fueran a tiempo parcial, el importe de la subvención se verá reducido en proporción al mismo.

***Artículo 11.***– Asistencia técnica.

Las empresas de inserción podrán acceder a las siguientes subvenciones en concepto de asistencia técnica:

a) Subvención para la realización de estudios de mercado con vistas a la apertura de nuevos mercados o a la reorientación de la actividad empresarial. Esta subvención financiará hasta el cincuenta por ciento (50%) del coste de los mismos, con un límite máximo de seis mil (6.000) euros.

La concesión de esa subvención obliga a la empresa a realizar el estudio de mercado dentro del ejercicio presupuestario en el que se concede.

b) Subvención para la realización de auditorías contables y de gestión. Esta subvención se otorgará con un límite máximo de mil doscientos cincuenta (1.250) euros y tiene por objeto fomentar la transparencia de la gestión financiera de las empresas de inserción, estimulando a las empresas que no tienen obligación de proceder anualmente a la auditoría de sus cuentas de conformidad con el Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, a auditarlas con una periodicidad mínima de una vez cada tres años. No podrán ser beneficiarias de esta modalidad de subvención las empresas que, de conformidad con el artículo 10.m) del mencionado Decreto tengan obligación de realizar una auditoría con carácter anual.

La concesión de esta subvención conlleva para la empresa de inserción la obligación de realizar la auditoría contable y de gestión dentro del ejercicio presupuestario en el que se concede.

***Artículo 12.***– Formación.

1.– Las subvenciones en concepto de formación cubrirán hasta el ochenta por ciento (80%) de los gastos de matrícula del curso correspondiente que realice la persona trabajadora en proceso de inserción.

2.– Estas subvenciones cubrirán así mismo las dietas de desplazamiento derivadas del traslado desde el municipio del domicilio de las personas en proceso de inserción que participen en el curso hasta el lugar donde se imparta el mismo, siempre que la distancia (ida y vuelta) entre ambos lugares sea superior a 10 km. Se pagarán los gastos generados por la utilización de transporte público y en caso de imposibilidad de utilización de transporte público, si se utiliza vehículo propio, un

bakoitzeko gehienez ere 0,15 euro eta autopista-gastuak ordainduko dira, betiere gastua justifikatzen bada.

3.– Diru-laguntza hori ematen bada, laneratzeko enpresa behartuta dago diruz lagundutako prestakuntza-ikastaroetan parte hartu duela bermatzera diru-laguntza ematen zaioneko aurrekontu-ekitaldiaren barruan.

## IV. KAPITULUA
## XEDAPEN ERKIDEAK

***13. artikulua.***– Kopurua finkatzeko irizpideak eta ponderazioa.

Diru-laguntzak emateko eta kopurua finkatzeko irizpideak honako hauek izango dira, gehieneko puntuazioen honako baremo honi jarraiki:

1.– Laneratzeko enpresak sortzeko laguntzen kasuan honako balorazio-irizpide hauek aplikatuko dira:

a) Diru-laguntzaren xede den merkatu-azterlana eskatzen duen proiektuaren kalitatea enpresa-ikuspuntutik: gehieneko puntuazioaren % 55 gehienez ere.

b) Azterlanaren erakunde sustatzaileek bazterketa-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonen gizarteratzean duten ibilbidea: gehieneko puntuazioaren % 25 gehienez ere.

c) Proiektatutako laneratzeko enpresaren egokitasuna gizarte-bazterketaren egoeran edo arriskuan dauden taldeak gizarteratzeari eta laneratzeari dagokienez: gehieneko puntuazioaren % 20 gehienez ere.

2.– Laneratzeko enpresak mantentzeko laguntzen kasuan, honako balorazio-irizpide hauek aplikatuko dira agindu honen 6. artikuluaren 1., 5. eta 6. ataletan ezarritako diru-laguntza lineei dagokienez:

a) Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzera edo mantentzera bideratutako aktibo finkoetan egindako inbertsioak.

1) Inbertsio-proiektuaren kalitatea enpresa-ikuspuntutik eta gizarteratze-helburuekiko egokitzapenaren ikuspuntutik: gehieneko puntuazioaren % 45 gehienez ere.

2) Enpresa-proiektuaren inbertsio-maila enpresaren finantza-ahalmenarekiko: gehieneko puntuazioaren % 15 gehienez ere.

3) Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostu kopurua: gehieneko puntuazioaren % 20 gehienez ere.

4) Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonek laneratzeko duten zailtasun-maila: gehieneko puntuazioaren % 20 gehienez ere.

b) Laguntza teknikoa:

máximo de 0,15 euros/km y gastos de autopista, siempre que se justifique el gasto.

3.– La concesión de esta subvención conlleva para la empresa de inserción la obligación de garantizar la participación en los cursos de formación subvencionados dentro del ejercicio presupuestario en el que se concede.

## CAPÍTULO IV
## DISPOSICIONES COMUNES

***Artículo 13***.– Criterios para la determinación de la cuantía y su ponderación.

Los criterios para la concesión y fijación de la cuantía de las subvenciones serán los que a continuación se señalan, de acuerdo con el siguiente baremo de puntuaciones máximas:

1.– En el caso de las ayudas destinadas a la creación de empresas de inserción se aplicarán los siguientes criterios de valoración:

a) Calidad del proyecto, desde el punto de vista empresarial, para cuyo estudio de mercado se solicita la subvención: hasta un 55% de la puntuación total máxima.

b) Trayectoria de las entidades promotoras del estudio en materia de inserción con las personas en situación o riesgo de exclusión: hasta un 25% de la puntuación total máxima.

c) Idoneidad de la empresa de inserción proyectada en relación con la inserción socio-laboral de colectivos en situación o riesgo de exclusión social: hasta un 20% de la puntuación total máxima.

2.– En el caso de las ayudas destinadas al sostenimiento de empresas de inserción, se aplicarán los siguientes criterios de valoración en relación con las líneas subvencionales establecidas en los apartados 1, 5 y 6 del artículo 6 de la presente Orden:

a) Inversiones en activos fijos orientadas a la creación o al mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción:

1) Calidad del proyecto de inversión desde el punto de vista empresarial y desde el punto de vista de su potencial adecuación a los objetivos de inserción: hasta un 45% de la puntuación total máxima.

2) Nivel de inversiones del proyecto empresarial en relación con la capacidad financiera de la empresa: hasta un 15% de la puntuación total máxima.

3) Número de puestos destinados a personas en proceso de inserción: hasta un 20% de la puntuación total máxima.

4) Grado de dificultad para la incorporación laboral de las personas en proceso de inserción: hasta un 20% de la puntuación total máxima.

b) Asistencia técnica:

1) Merkatu-azterlanak egitea, merkatu berriak irekitzeko edo enpresa-jarduera berriz bideratzeko.

– Diru-laguntzaren xede den merkatu-azterlana eskatzen duen proiektuaren kalitatea enpresa-ikuspuntutik: gehieneko puntuazioaren % 50 gehienez ere.

– Enpresa-proiektuaren inbertsio-maila enpresaren finantza-ahalmenarekiko: gehieneko puntuazioaren % 25 gehienez ere.

– Enpresaren jardueraren orientabide berriaren edota merkatu berrien irekieraren egokitasuna gizarte-bazterketaren egoeran edo arriskuan dauden taldeen gizarteratzeari eta laneratzeari dagokienez: gehieneko puntuazioaren % 25 gehienez ere.

2) Kontabilitate-auditoretzak eta kudeaketa-auditoretzak egitea.

– Diru-laguntzaren xede den kontabilitate- eta kudeaketa-auditoretzaren proiektuaren kalitatea: gehieneko puntuazioaren % 50 gehienez ere.

– Kudeaketaren gardentasuna eta hobekuntza sustatzeko kontabilitate- eta kudeaketa-auditoretza egitearen komenigarritasuna balioestea: gehieneko puntuazioaren % 50 gehienez ere.

c) Prestakuntza:

1) Ikastaroa enpresaren eta gizarteratze-prozesuan dagoen langilearen beharrei egokitzea: gehieneko puntuazioaren % 50 gehienez ere.

2) Ikastaroa eskaintzen duen prestakuntza-erakundeak gizarteratzeko eta laneratzeko prestakuntzan duen ibilbidea: gehieneko puntuazioaren % 25 gehienez ere.

3) Ikastaroaren kalitatea: gehieneko puntuazioaren % 25 gehienez ere.

***14. artikulua.***– Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta diru-laguntza publikoei dagozkienak betetzea.

1.– Agindu honetan aurreikusten diren laguntzak ematea eta ordaintzea erakunde eskatzaileek zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak betetzearen menpe dago, Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7ko Aginduak xedatzen duenaren arabera.

2.– Erakunde onuradunei laguntzak ematea eta, hala badagokio, horien ordainketa, baldintzaturik geratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek ematen dituzten izaera bereko laguntzen edo diru-laguntzen esparruan dirua itzultzeko edo zehapenen bat ezartzeko espedientea hasi baldin bada, eta oraindik tramiteak amaitu gabe baldin badaude, prozedura hori burutu arte.

3.– Erakunde onuradunek ez dute diru-laguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukera galtzeko zigor- edo

1) Realización de estudios de mercado con vistas a la apertura de nuevos mercados o a la reorientación de la actividad empresarial.

– Calidad del proyecto, desde el punto de vista empresarial, para cuyo estudio de mercado se solicita la subvención: hasta un 50% de la puntuación total máxima.

– Nivel de inversiones del proyecto empresarial en relación con la capacidad financiera de la empresa: hasta un 25% de la puntuación total máxima.

– Idoneidad de la nueva orientación de la actividad de la empresa o de la apertura de nuevos mercados en relación con la inserción socio-laboral de colectivos en situación o riesgo de exclusión social: hasta un 25% de la puntuación total máxima.

2) Realización de auditorias contables y de gestión.

– Calidad del proyecto de auditoría contable y de gestión para cuya realización se solicita la subvención: hasta un 50% de la puntuación total máxima.

– Valoración de la conveniencia de la realización de la auditoría contable y de gestión, en orden al fomento de la transparencia y mejora de su gestión: hasta un 50% de la puntuación total máxima.

c) Formación:

1) Adecuación del curso a las necesidades de la empresa y del trabajador en proceso de inserción: hasta un 50% de la puntuación total máxima.

2) Trayectoria de la entidad formativa ofertante del curso en materia de capacitación para la inserción socio laboral: hasta un 25% de la puntuación total máxima.

3) Calidad del curso: hasta un 25% de la puntuación total máxima.

***Artículo 14.***– Cumplimiento de obligaciones tributarias, de Seguridad Social y en materia de subvenciones públicas.

1.– La concesión y pago de las ayudas previstas en la presente Orden queda condicionada a la acreditación por parte de las entidades solicitantes del cumplimiento de sus obligaciones tributarias, de conformidad con lo dispuesto en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, y frente a la Seguridad Social.

2.– Asimismo, la concesión y, en su caso, el pago a las entidades beneficiarias de las ayudas previstas en la presente Orden quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– Las entidades beneficiarias no deberán encontrarse sancionadas penal ni administrativamente con la

administrazio-arloko zehapenik izango, ezta horretarako ezgaitzen dituen legezko debekurik ere, Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoari jarraiki sexu-diskriminazioa dela-eta gertatutakoak barne.

***15. artikulua***.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako betebeharrak, aplika daitezkeenak, eta agindu honetan arautdutako diru-laguntza linea bakoitzean berariaz ezarritakoa alde batera utzi gabe, laguntzak jasotzen dituzten erakundeek honako hauek bete beharko dituzte:

a) Diruz lagundutako jardueren xedea edo izaera nabarmen aldatzen dituzten gorabeheren berri ematea, eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari lankidetza eskaintzea, jarduera horiek egiaztatu, ikuskatu, jarraitu eta kontrolatzeko prozeduretan.

b) Era berean, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren laguntza jaso dutela esanbidez jasota utzi beharko da, baldin eta laguntzaren xede izan diren jarduerak zabaldu, hedatu edo argitaratu behar badira.

c) Diru-laguntzen zertarakoa eta aplikazioa ziurtatu behar dute konpromisozko bermeen bitartez, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuko lehenengo tituluan aurreikusitakoaren arabera (dekretu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautu zen eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta betebeharrak ezarri ziren).

***16. artikulua.***– Beste diru-laguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Agindu honetan arautdutako diru-laguntzak bateragarriak dira arrazoi eta xede beragatik beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek ematen dituzten bestelako laguntzekin. Nolanahi ere, diru-laguntzen zenbatekoak ezin izango du gainditu diru-laguntza jasotzen duen jardueraren guztizko kostua.

2.– Erakunde onuradunak agindu honetako laguntzekin batera beste Administrazio edo erakunde publiko edo pribatu batzuek xede eta helburu berarekin emandako beste edozein laguntza jasotzen duenean, laguntza guztien baturak diruz lagundu beharreko jardueraren guztizko kostua gaindituz gero, soberakin horren bateraezintasuna adieraziko da eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eman beharreko laguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, o incursos en prohibición legal que les inhabiliten para ello, con inclusión de las que se hayan producido por discriminación por razón de sexo de conformidad con lo dispuesto en la Disposición Final sexta de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

***Artículo 15***.– Obligaciones de las entidades beneficiarias.

Sin perjuicio de las obligaciones señaladas en el artículo 50.2 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, que en su caso resulten aplicables, y las establecidas con carácter específico en cada una de las líneas subvencionales reguladas en la presente Orden, las entidades beneficiarias de las ayudas quedan obligadas a:

a) Comunicar cualquier eventualidad que altere sustancialmente el objeto o naturaleza de las actividades subvencionadas, así como a colaborar con el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social en los procedimientos de comprobación, inspección, seguimiento y control de dichas actividades.

b) Hacer constar expresamente el patrocinio del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social del Gobierno Vasco en todas aquellas actividades subvencionadas que conlleven la divulgación, difusión o, en su caso, publicación de las mismas.

c) Garantizar el destino y aplicación de las mismas mediante garantías relacionales, conforme a lo previsto en el Título Primero del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre, por el que se regula el régimen general de garantías y reintegros de las subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se establecen los requisitos, régimen y obligaciones de las Entidades colaboradoras que participan en su gestión.

***Artículo 16***.– Concurrencia con otras subvenciones o ayudas.

1.– Las subvenciones reguladas en la presente Orden son compatibles con aquellas otras que, con el mismo objeto y finalidad, pudieran ser otorgadas por cualesquiera otras Administraciones o entidades públicas o privadas. En cualquier caso el importe de las subvenciones no podrá superar el coste total de la actividad objeto de subvención.

2.– Cuando las ayudas de la presente Orden concurran con cualesquiera otras que por el mismo motivo y finalidad perciba la entidad beneficiaria de otras Administraciones o entidades públicas o privadas, si la suma de las mismas superare el coste total de la actividad objeto de subvención, se declarará la incompatibilidad de dicho exceso, reduciéndose el importe de la ayuda a conceder por el Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

***17. artikulua***.– Diru-laguntzen publizitatea.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak, bere sailburuaren aginduaren bidez, urtero egingo du aginduan aurreikusitako laguntzak emateko deialdia, dagokion aurrekontu-esleipena eta eskabideak aurkezteko epea jasotzen duena.

***18. artikulua.***– Eskabideen aurkezpena.

1.– Eskabideak eskari normalizatu bidez aurkeztuko dira eta eskari hori Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren Lurralde Ordezkaritzetan edo Gizarteratze Zuzendaritzan jaso eta aurkeztu ahal izango da dagokion dokumentazioarekin batera. Edonola ere, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

2.– Aurreko atalean aipatzen diren eskari normalizatuak Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko Lurralde Ordezkaritzetan lortuko dituzte erakunde interesdunek.

***19. artikulua***.– Derrigorrezko dokumentazioa.

1.– Laneratzeko enpresak sortzeko laguntzen kasuan, erakunde interesdunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskabide normalizatuarekin batera:

a) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.

b) Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Lurralde Zuzendaritzaren edo, Kooperatiba Sozietateen kasuan, dagokion erakundearen ziurtagiria -eguneratua eta bi aletan-, laguntza eskatu duen erakundeak Zergak eta Gizarte Segurantza ordainduta dituela ziurtatzen duena. Ziurtagiriaren ordez, idazki bat aurkeztu ahal izango da, behar bezala zigilatuta, ziurtagiria eskatu izana frogatzeko, baina idazki horrek eskabidea aurkezteko baino ez du balio izango. Zor bat atzeratzea lortzen duen erakundeak ordainketak eguneratuta dauzkala joko da, baina agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.

c) Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, administrazio honi edo beste Administrazio Publiko batzuei edota beste erakunde publiko batzuei xede eta helburu bererako eskatutako beste edozein laguntza zein egoeratan dagoen (emanda, eskatuta edo bideratzen) jakinarazteko.

d) Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren erakunde autonomoek emandako -eta izaera bereko diren- laguntza eta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedurei nahiz zehapen-prozedurei buruz, prozedura horiek oraindik izapidetzealdian badaude, behintzat.

e) Merkatu-azterlanera jarri nahi den laneratzeko enpresa sortzeko proiektua, aurrekontu ekonomikoarekin batera.

***Artículo 17***.– Publicidad de las líneas subvencionables.

El Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, mediante Orden de su Consejero, convocará anualmente las líneas de ayudas previstas en esta Orden, con expresión de la dotación presupuestaria correspondiente y del plazo de presentación de solicitudes.

***Artículo 18.***– Presentación de solicitudes.

1.– Las solicitudes se presentarán, mediante instancia normalizada que podrá recogerse y entregarse, junto con la documentación que corresponda, en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social, o bien en la Dirección de Inserción Social. En todo caso, será de aplicación lo previsto en el artículo 38.4 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

2.– Las instancias normalizadas a que hace referencia el párrafo anterior serán facilitadas a las Entidades interesadas en las Delegaciones Territoriales del Departamento de Justicia, Empleo y Seguridad Social.

***Artículo 19***.– Documentación preceptiva.

1.– En el caso de las ayudas destinadas a la creación de empresas de inserción, las Entidades interesadas presentarán, junto con la solicitud normalizada, la siguiente documentación:

a) Copia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.

b) Certificado, actualizado y por duplicado, de la Hacienda Foral y de la Dirección Provincial de la Tesorería General de la Seguridad Social, o de la entidad correspondiente en el caso de Sociedades Cooperativas, que acredite que la entidad solicitante de la ayuda se encuentra al corriente en el pago de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social. Únicamente a los efectos de presentación de la solicitud, dicha certificación podrá sustituirse por el escrito debidamente sellado en el que conste su requerimiento. Se entenderá en situación regular de pagos la entidad que hubiere obtenido un aplazamiento y lo acredite documentalmente respecto de la deuda aplazada.

c) Declaración jurada de la Entidad solicitante en la que se haga constar la situación en que se encuentre (concedida, solicitada o en trámite) cualquier otra ayuda que para el mismo objeto y finalidad se haya solicitado a ésta u otras Administraciones Públicas u otras entidades públicas o privadas.

d) Declaración jurada de la Entidad solicitante de los procedimientos de reintegro o sancionadores que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, se hallen aún en tramitación.

e) Proyecto de creación de la empresa de inserción que se pretende someter a estudio de mercado, acompañado del presupuesto económico.

f) Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez dagoela adierazita; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

2.– Laneratzeko enpresak mantentzera bideratutako laguntzen kasuan, enpresa interesdunek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute eskabide normalizatuarekin batera:

a) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren kopia.

b) Ekitaldi bakoitzaren amaierako urteko kontuak eta kudeaketa-txostena.

c) Hurrengo urterako jarduera-plana eta aurrekontua, eskatzen den laguntzari dagozkion diru-laguntza lineei dagokienez.

d) Foru Ogasunaren eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Lurralde Zuzendaritzaren edo, Kooperatiba Sozietateen kasuan, dagokion erakundearen ziurtagiria -eguneratua eta bi aletan-, laguntza eskatu duen erakundeak Zergak eta Gizarte Segurantza ordainduta dituela ziurtatzen duena. Ziurtagiriaren ordez, idazki bat aurkeztu ahal izango da, behar bezala zigilaturik, ziurtagiria eskatu izana frogatzeko, baina idazki horrek eskaera aurkezteko baino ez du balio izango. Zor bat atzeratzea lortzen duen erakundeak ordainketak eguneratuta dauzkala joko da, baina agirien bidez egiaztatu beharko du hori guztia.

e) Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, administrazio honi edo beste Administrazio Publiko batzuei edota beste erakunde publiko batzuei xede eta helburu bererako eskatutako beste edozein laguntza zein egoeratan dagoen (emanda, eskatuta edo bideratzen) jakinarazteko.

f) Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren Erakunde Autonomoek emandako -eta izaera bereko diren- laguntza eta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozedurei nahiz zehapen-prozedurei buruz, prozedura horiek oraindik izapidetzealdian badaude, behintzat.

g) Aktibo finkoetako inbertsioetarako diru-laguntzen kasuan, inbertsio-proiektua.

h) Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortu eta mantentzeko diru-laguntzen kasuan, sor daitezkeen lanpostuen kopuruaren aurreikuspena, lanpostuak sortzeko aurreikusitako programazio osoa adierazita.

i) Laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortu eta mantentzeko diru-laguntzen kasuan, sor daitezkeen lanpostuen kopuruaren aurreikuspena.

f) Declaración jurada de la Entidad solicitante de no hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

2.– En el caso de las ayudas destinadas al sostenimiento de empresas de inserción, las empresas interesadas presentarán, junto con la solicitud normalizada, la siguiente documentación.

a) Copia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.

b) Cuentas anuales e informe de gestión correspondiente al cierre de cada ejercicio.

c) Plan de actividades y presupuesto para el año entrante, en relación con las líneas subvencionables para las que se solicita la ayuda correspondiente.

d) Certificado, actualizado y por duplicado, de la Hacienda Foral y de la Dirección Provincial de la Tesorería General de la Seguridad Social, o de la entidad correspondiente en el caso de Sociedades Cooperativas, que acredite que la entidad solicitante de la ayuda se encuentra al corriente en el pago de las obligaciones tributarias y de la Seguridad Social. Únicamente a los efectos de presentación de la solicitud, dicha certificación podrá sustituirse por el escrito debidamente sellado en el que conste su requerimiento. Se entenderá en situación regular de pagos la entidad que hubiere obtenido un aplazamiento y lo acredite documentalmente respecto de la deuda aplazada.

e) Declaración jurada de la Entidad solicitante en la que se haga constar la situación en que se encuentre (concedida, solicitada o en trámite) cualquier otra ayuda que para el mismo objeto y finalidad se haya solicitado a ésta u otras Administraciones Públicas u otras entidades públicas o privadas.

f) Declaración jurada de la Entidad solicitante de los procedimientos de reintegro o sancionadores que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma y sus Organismos Autónomos, se hallen aún en tramitación.

g) En el caso de las subvenciones para inversiones en activos fijos, proyecto de inversiones.

h) En el caso de las subvenciones para la creación y el mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción, previsión del número de puestos de trabajo susceptibles de ser creados, con indicación de la programación en el tiempo prevista para su creación.

i) En el caso de las subvenciones para la creación y el mantenimiento de puestos de trabajo de técnicos de acompañamiento, previsión del número de puestos susceptibles de ser creados.

j) Merkatu-azterlanak egiteko diru-laguntzen kasuan, merkatuak irekitzeko edo azterlanaren xede den enpresa-jarduera bideratzeko proiektua, aurrekontu ekonomikoarekin batera.

k) Kontabilitate- eta kudeaketa-auditoretzak egiteko diru-laguntzen kasuan, auditoretza-proiektua.

l) Prestakuntza-ikastaroetarako diru-laguntzen kasuan, enpresaren prestakuntza-plana; bertan, gutxienez, ikastaroen zerrenda, ikastaroak jaso ditzaketen ikasleen kopurua eta ikastaroak emango dituzten erakundeen zerrenda adieraziko dira.

m) Erakunde eskatzailearen zinpeko aitorpena, zigor- eta administrazio-arloko diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin zigortuta ez dagoela eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean ez dagoela adierazita; Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera sexu-diskriminazioarengatik gertatutakoak barne.

***20. artikulua.***– Eskabidean egindako akatsak zuzentzea.

Diru-laguntzak lortzeko eskabideak oso-osorik bete ezean, edo aurreko artikuluan ezarritako dokumentazioa aurkeztu ezean, hamar egunetan akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko eskatuko zaio erakunde interesdunari. Hori egin ezean eskabideari uko egiten diola ulertuko dugu. Administrazioak, ordea, espresuki erabaki eta jakinarazi behar du ebazpena, azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 71.1 eta 42.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera (Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea).

***21. artikulua***.– Kudeaketa, ebazpena, errekurtsoak eta publizitate-prozedura.

1.– Gizarte Ongizateko Zuzendaritza izango da agindu honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

2.– Gizarteratze zuzendariak esanbidez emandako Ebazpenaren bidez eman edo ukatuko dira Agindu honetan aurreikusitako diru-laguntzak. Prozesu hori modu jarraituan egingo da, eskabideak jaso ahala.

3.– Ebazpen horrek administrazioarekiko bidea agortzen ez duenez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Gizarteratze sailburuordeari, hilabeteko epean jakinarazpen-egunaren biharamunetik kontatzen hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 114. eta 115. artikuluetan xedatutakoari jarraiki.

4.– Eskabidea aurkeztu eta hiru hilabete igaro ondoren ez bada esanbidezko ebazpenik eman eta jakinarazi,

j) En el caso de las subvenciones para la realización de estudios de mercado, proyecto de apertura de mercados o de reorientación de la actividad empresarial que se somete a estudio, acompañado del presupuesto económico.

k) En el caso de las subvenciones para la realización de auditorías contables y de gestión, proyecto de auditoría.

l) En el caso de las subvenciones para cursos de formación, plan de formación de la empresa, en el que se expresarán, al menos, la relación de los cursos, número de alumnos susceptibles de recibir los cursos y la relación de entidades prestadoras de los cursos.

m) Declaración jurada de la Entidad solicitante de no hallarse sancionada penal ni administrativamente con la pérdida de la posibilidad de obtención de subvenciones o ayudas públicas, ni estar incursa en prohibición legal alguna que la inhabilite para ello, con inclusión de las que se hayan producido por incurrir en discriminación por razón de sexo, en virtud de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, de Igualdad de Mujeres y Hombres.

***Artículo 20***.– Subsanación de defectos de la solicitud.

Si las solicitudes de subvención no vinieran cumplimentadas en todos sus términos, o no fueran acompañadas de la documentación que se relaciona en el artículo anterior, se requerirá a la Entidad interesada para que, en un plazo de diez días subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida en su petición, estando obligada la Administración a dictar Resolución expresa sobre esta solicitud, así como a notificarla, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 71.1 y 42.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Artículo 21***.– Gestión, Resolución, Recursos y Procedimiento de publicidad.

1.– El órgano competente para la gestión de las ayudas previstas en la presente Orden será la Dirección de Inserción Social.

2.– La concesión y la denegación de las subvenciones previstas en la presente Orden se realizará mediante Resolución expresa e individualizada del Director de Inserción Social. Este proceso se hará de forma continuada según el orden de recepción de solicitudes.

3.– Dicha Resolución no agota la vía administrativa y contra la misma cabe interponer recurso de alzada ante el Viceconsejero de Inserción Social, en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente a aquél en que tenga lugar la notificación, conforme a lo señalado en los artículos 114 y 115 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

4.– Transcurridos tres meses desde la presentación de la solicitud sin que se haya dictado y notificado Resolu-

eskabideak ukatutzat joko dira, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako; hala ere, Administrazioak esanbidezko ebazpena eman behar du.

5.– Publizitate-printzipioa betetzeko, Gizarte Ekonomiako zuzendariaren ebazpenaz honako hau emango da jakitera Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian: alde batetik, agindu honen babesean diru-laguntza zein erakundek jaso duten eta zenbateko laguntza jaso duten, eta, bestetik, zein erakunderi emandako diru-laguntzak aldatu diren. Nolanahi ere, emateko ebazpenak esanbidez eta banan-banan jakinaraziko da.

***22. artikulua***.– Diru-laguntzak ordaintzeko eta justifikatzeko modua.

Agindu honetan arautako diru-laguntzak honela ordainduko dira:

1.– Laneratzeko enpresak sortzeko laguntzak.

Diru-laguntza horren ordainketa honako prozedura honen bidez egingo da:

a) Lehen ordainketan diru-laguntzaren guztizkoaren % 70, diru-laguntza ematen den unean.

b) Bigarren ordainketan % 20, azterlana eta egindako gastuen jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu ondoren.

c) Hirugarren ordainketan gainerako % 10a, laneratzeko enpresen erregistroan inskripzioa egiteko eskaera gauzatu ondoren, betiere proiektua bideragarria bada. Proiektua bideragarria ez bada, hirugarren ordainketa hau azterlana aurkezteko unera aurreratuko da.

2.– Laneratzeko enpresen iraunkortasunerako laguntzak.

a) Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzera edo mantentzera bideratutako aktibo finkoetan egindako inbertsioetarako diru-laguntzak.

Diru-laguntza horren ordainketa honako prozedura honen bidez egingo da:

1) Lehen ordainketan diru-laguntzaren guztizkoaren % 70, diru-laguntza ematen den unean.

2) Bigarren ordainketan, gainerako % 30a, egindako inbertsioen jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu ondoren, eta gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak bete ondoren.

b) Gizarteratze-prozesuan dauden pertsonentzako lanpostuak sortzeko eta mantentzeko diru-laguntzak.

ción expresa, las solicitudes se entenderán desestimadas, a los efectos de lo establecido en el artículo 44.1 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, sin perjuicio de la obligación de la Administración de resolver expresamente.

5.– A fin de dar cumplimiento al principio de publicidad, y sin perjuicio de la notificación expresa e individualizada de las Resoluciones de concesión, mediante Resolución del Director de Inserción Social se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco una relación de las Entidades que hayan resultado beneficiarias de las ayudas concedidas al amparo de la presente disposición con expresión de las cuantías recibidas, así como la de aquéllas respecto de las que se haya procedido a modificar la subvención concedida.

***Artículo 22***.– Forma de pago y justificación de las subvenciones.

El pago de las subvenciones reguladas en la presente Orden se realizará de la manera siguiente:

1.– Ayudas destinadas a la creación de empresas de inserción.

El pago de esta subvención se realizará mediante el siguiente procedimiento:

a) Un primer pago del 70% del total de la subvención atribuible por dicho concepto, en el momento de la concesión.

b) Un segundo pago del 20%, previa presentación del estudio y de los originales acreditativos de los gastos realizados.

c) Un tercer pago del 10% restante, tras la solicitud de inscripción en el Registro de empresas de inserción cuando el proyecto resultara viable. En caso de que el proyecto no resultara viable, este tercer pago se anticipará al momento de la presentación del estudio.

2.– Ayudas destinadas al sostenimiento de las empresas de inserción.

a) Subvenciones para inversiones en activos fijos orientadas a la creación o al mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción.

El pago de esta subvención se realizará mediante el siguiente procedimiento:

1) Un primer pago del 70% del total de la subvención atribuible por dicho concepto, en el momento de la concesión.

2) Un segundo pago del 30% restante, previa presentación de los originales acreditativos de las inversiones realizadas y de haber cubierto los puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción.

b) Subvenciones para la creación y el mantenimiento de puestos de trabajo destinados a personas en proceso de inserción.

Diru-laguntza horren ordainketa honako prozedura honen bidez egingo da:

1) Diru-laguntza ematen den lehen urtean:

– Lehen ordainketan lehen urteari dagokion diru-laguntzaren guztizkoaren % 50, diru-laguntza ematen den unean.

– Bigarren ordainketan gainerako % 50a, lehen ordainketaren datatik sei hilabetera.

2) Diru-laguntza ematen deneko bitarteko aldian:

– Diruz lagundutako kopuruaren urteko zenbatekoaren % 50aren seihilekoko ordainketak.

– Ondoren egin beharreko laguntza hauen urteko ordainketetan, lehen eta bigarren ordainketa egiteko beharrezkoa izango da laneratzeko enpresak lanpostu horiek gizarteratze-prozesuan dauden pertsonek betetzen dituztela egiaztatuko duen dokumentazioa aurkeztea eta Kudeaketa Zuzendaritzak egiaztatzea.

3) Diru-laguntza ematen den hirugarren aldian:

– Diru-laguntza ematen deneko aldiaren azken urtean, urte horretan bertan diruz lagundutako zenbatekoaren % 50aren lehen ordainketa egingo da.

– Bigarren ordainketa, % 40arena, diruz lagundutako aldiaren azken seihilekoari dagokio.

– Azken ordainketan gainerako % 10a ordainduko da, prozesuaren amaiera bete izana justifikatu ondoren.

c) Produkzioari laguntzeko teknikarientzako lanpostuak sortu eta mantentzeko diru-laguntzak.

Diru-laguntzaren ordainketa aurreko atalean adierazitako prozedurari jarraiki egingo da.

d) Laneratzen laguntzeko ekintzetan espezializatutako teknikarientzako lanpostuak sortu eta mantentzeko diru-laguntzak.

Diru-laguntzaren ordainketa aurreko bi ataletan adierazitako prozedurari jarraiki egingo da.

e) Laguntza teknikoa.

1) Merkatu-azterlanak egitea, merkatu berriak irekitzeko edo enpresa-jarduera berriz bideratzeko.

Emandako diru-laguntzaren ordainketa honako prozedura honen bidez egingo da:

– Lehen ordainketan diru-laguntzaren guztizkoaren % 50, diru-laguntza ematen den unean.

– Bigarren ordainketan % 50, aldez aurretik azterlana eta egindako gastuen jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu ondoren.

2) Kontabilitate-auditoretzak eta kudeaketa-auditoretzak egiteko diru-laguntza.

El pago de la subvención se realizará mediante el siguiente procedimiento:

1) En el primer año de la concesión:

– Un primer pago del 50% del total de la subvención correspondiente al primer año, en el momento de la concesión.

– Un segundo pago del 50% restante, a los seis meses de la fecha del primer pago.

2) Durante el periodo intermedio de la concesión:

– Sucesivos pagos semestrales del 50% del importe anual de la cuantía subvencionada.

– En los sucesivos pagos anuales de estas ayudas, tanto el primero como el segundo pago de las mismas se realizarán tras la presentación por la empresa de inserción, y subsiguiente comprobación por la Dirección gestora, de la documentación que acredite que dichos puestos de trabajo siguen ocupados por personas en proceso de inserción.

3) En el último periodo de la concesión:

– En el último año del periodo de concesión se realizará un primer pago del 50% del importe subvencionado en dicho año.

– Un segundo pago del 40%, que corresponde al último semestre del periodo subvencionado.

– Un último pago del 10% restante, tras la justificación del cumplimiento de la finalización del proceso.

c) Subvenciones para la creación y el mantenimiento de puestos de trabajo destinados a técnicos de acompañamiento a la producción.

El pago de la subvención se realizará siguiendo el procedimiento señalado en el apartado anterior.

d) Subvenciones para la creación y el mantenimiento de puestos de trabajo destinados a técnicos especializados en acciones de acompañamiento a la inserción.

El pago de la subvención se realizará siguiendo el procedimiento señalado en los dos apartados anteriores.

e) Asistencia técnica.

1) Subvención para la realización de estudios de mercado con vistas a la apertura de nuevos mercados o a la reorientación de la actividad empresarial.

El pago de la subvención concedida se realizará mediante el siguiente procedimiento:

– Un primer pago del 50% del total de la subvención atribuible por dicho concepto, en el momento de la concesión.

– Un segundo pago del 50%, previa presentación del estudio y de los originales acreditativos de los gastos realizados.

2) Subvención para la realización de auditorías contables y de gestión.

Emandako diru-laguntzaren ordainketa honako prozedura honen bidez egingo da:

– Lehen ordainketan diru-laguntzaren guztizkoaren % 50, diru-laguntza ematen den unean.

– Bigarren ordainketan % 50, kontabilitate- eta kudeaketa-auditoretza eta egindako gastuen jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu ondoren.

f) Prestakuntzarako diru-laguntzak.

Emandako diru-laguntzaren ordainketa honako prozedura honen bidez egingo da:

1) Lehen ordainketan diru-laguntzaren guztizkoaren % 60, diru-laguntza ematen den unean.

2) Bigarren ordainketan % 40, egindako gastuen jatorrizko egiaztagiriak aurkeztu ondoren.

***23. artikulua.***– Baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honen xedeetarako behar diren baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrean, edo aurrekontu izaerako lege mailako arauetan, horretarako propio ezartzen diren aurrekontuko kredituetatik aterako dira. Ezin izango da ekitaldiko aurrekontuetan onartutako diru-laguntzetarako kopuru osoa baino diru gehiago eman, ez eta, baldin eta, indarrean dagoen legediaren arabera aurrekontuak aldatzea onartuta, halakorik gertatzen bada, aurrekontuak eguneratzean onartzen diren aurrekontu-kredituetan onartutakoa baino gehiago ere. Aldaketa horiek egon baleude, gertaera hori argitara emango litzateke, Gizarteratze eta Familia sailburuordearen ebazpen baten bidez. Laguntzak dagozkien ordainketa eta konpromisozko kredituei egotziko zaizkie zatikako ordainketei aurre egineko, hau guztia delako ekitaldian aplikagarria gerta dadin aurrekontu-itxierari buruzko arautegiaren kalterik gabe.

2.– Aurrekontuan helburua betetzeko behar besteko kreditu ez badago, laguntzak ez dira onartuko, eta, hartara, agindu honek eta garapen-arauek beste laguntza batzuk emateko duten eraginkortasuna baliogabetuta geratuko da. Horregatik guztiagatik, Agindu hau indarrean dagoen bitartean ekitaldi ekonomiko batean laguntzak emateko ezarritako kreditua agortuz gero, Gizarteratze eta Familia sailburuordeak egoera horren berri emango du, ebazpen administratiboaren bidez, eta, ebazpen horretan kreditua noiz agortu den azaldu beharko du. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

3.– Aurrekontu-ekitaldi batean diruz lagun daitezkeen egoerei dagozkien laguntza-eskabideei erantzuterik ez badago ekitaldi horren aurrekontu-kredituak kontuan hartuta, eskabide horiek hurrengo ekitaldiko aurrekontu-kredituei esleitu ahal izango zaizkie, beste eskabide bat aurkeztu ondoren, betiere egoera horiek

El pago de la subvención concedida se realizará mediante el siguiente procedimiento:

– Un primer pago del 50% del total de la subvención atribuible por dicho concepto, en el momento de la concesión.

– Un segundo pago del 50%, previa presentación de la auditoría contable o de gestión y de los originales acreditativos de los gastos realizados.

f) Subvenciones en concepto de formación.

El pago de la subvención concedida se realizará mediante el siguiente procedimiento:

1) Un primer pago del 60% del total de la subvención atribuible por dicho concepto, en el momento de la concesión.

2) Un segundo pago del 40%, previa presentación de los originales acreditativos de los gastos realizados.

***Artículo 23***.– Recursos económicos.

1.– Los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto de la presente Orden procederán de los correspondientes créditos presupuestarios establecidos al efecto en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma del País Vasco o en normas con rango de Ley de carácter presupuestario. El importe total de las ayudas a conceder dentro de un ejercicio presupuestario no superará la citada consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente. En el supuesto de que existan dichas modificaciones se dará publicidad de esta circunstancia mediante Resolución del Viceconsejero de Inserción Social y de Familia. Las ayudas se imputarán a los créditos de pago y de compromiso correspondientes a fin de hacer frente a los pagos fraccionados, todo ello sin perjuicio de la normativa sobre cierre presupuestario que resulte aplicable en el ejercicio.

2.– Se denegará la concesión de las ayudas en el caso en el que el Presupuesto al que deban imputarse las citadas ayudas carezca de crédito adecuado y suficiente para la finalidad pretendida, suspendiéndose la eficacia de la presente Orden y de sus normas de desarrollo en lo relativo a la concesión de nuevas ayudas. Por todo ello, mientras se encuentre vigente la presente Orden, si en un ejercicio económico se agota el crédito consignado para la concesión de las ayudas, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia por el Viceconsejero de Inserción Social y de Familia se emitirá Resolución administrativa en la que se señalará la fecha en la que se ha producido el agotamiento del citado crédito, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

3.– Si en un ejercicio presupuestario hubiere solicitudes de ayudas relativas a situaciones subvencionables que no puedan ser atendidas con los créditos presupuestarios de dicho ejercicio, podrán imputarse a los créditos presupuestarios del ejercicio posterior, previa presentación de una nueva solicitud, siempre que las citadas si-

agindu honetan laguntzak lortzeko ezarritako eskakizunak betetzen badituzte.

***24. artikulua***.– Europako Gizarte Funtsaren finantziazioa.

Dekretu honetan aurreikusitako diru-laguntzak emateko ebazpenean Europako Gizarte Funtsak ere finantzatzen dituela ageri beharko da.

***25. artikulua***.– Diru-laguntzen aldaketa eta amaiera.

1.– Diru-laguntza emateko kontuan izandako baldintzak aldatu badira, edo, hala dagokionean, administrazio honek edo beste Administrazio Publiko batzuek edo ente publiko edo pribatu batzuek emandako beste diru-laguntza edo laguntza batzuk aldi berean lortzen badira, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da, betiere erakunde onuradun izateko aginduan ezarritako gutxieneko baldintzak betetzen badira. Horretarako, Gizarteratze Zuzendaritzak aldaketa egiteko ebazpena emango du. Ebazpen horren bidez, emandako diru-laguntzen zenbatekoak (zenbateko horiek emateko ezarritako irizpideak eta mugak aplikatuta eman dira) egokituko dira, eta erakunde onuradunek itzuli egin beharko dituzte soberakinak.

2.– Ezarritako epea betetzen denean edo diru-laguntza ematerakoan zeuden baldintzak jadanik betetzen ez direnean iraungiko dira laguntzak.

***26. artikulua***.– Arauak ez betetzea eta erantzukizunak.

Diru-laguntzaren erakunde onuraduna Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluak adierazitako kasuren batean biltzen bada, azaroaren 11ko 182/2008 Dekretuaren 11. artikuluan ezarritakoari jarraiki laneratzeko enpresaren kalifikazioa galtzen badu edo Agindu honetan, gainerako arau aplikagarrietan eta emakidari buruzko ebazpenean ezarritako edozein baldintza betetzen ez badu, Gizarteratze zuzendariak, ebazpen baten bidez, jasotzeko geratzen diren kopuruak hartzeko eskubidearen galera eta, hala badagokio, Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari jasotako kopuruak gehi diru-laguntza ordaintzen denetik bidezkoak diren legezko interesak itzultzeko betebeharra deklaratuko du, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan ezarritakoari jarraiki bidezkoak diren gainerako ekintzak alde batera utzi gabe. Aipatutako kopuruak sarrera publikotzat hartuko dira legezko ondorioetarako eta erantzukizunen erregimena Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan aurreikusitakoa izango da. Diru-kopuru horiek herri-dirutzat hartuko dira, dagozkien legezko ondorioetarako, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 64. artikuluan ezarritakoa izango da erantzukizunen erregimena.

tuaciones cumplan con los requisitos establecidos en la presente Orden para la obtención de las ayudas.

***Artículo 24***.– Cofinanciación del Fondo Social Europeo.

En la Resolución de concesión de las ayudas previstas en la presente Orden se hará constar la cofinanciación del Fondo Social Europeo.

***Artículo 25***.– Modificación y extinción de las subvenciones.

1.– Toda alteración de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y, en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones o ayudas otorgadas por esta u otras Administraciones Públicas o entes públicos o privados, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión, siempre que se salvaguarden los requisitos mínimos establecidos en esta Orden para ser entidad beneficiaria. A estos efectos, la Dirección de Inserción Social dictará la oportuna Resolución de modificación en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas aplicándose los criterios y límites establecidos para su otorgamiento, quedado obligadas las entidades beneficiarias a la devolución de los importes percibidos en exceso.

2.– Las ayudas se extinguirán cuando se cumpla el plazo para el que fueron concedidas o cuando dejen de concurrir los requisitos que dieron lugar a su concesión.

***Artículo 26***.– Incumplimientos y responsabilidades.

En el supuesto de que la Entidad beneficiaria de la subvención incurriese en alguno de los supuestos contemplados en el artículo 53.1 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco, perdiera la calificación de empresa de inserción conforme a lo establecido en el artículo 11 del Decreto 182/2008, de 11 de noviembre, o incumpliese cualquiera de las condiciones establecidas en la presente Orden y demás normas aplicables, así como en la Resolución de concesión, el Director de Inserción Social, mediante la correspondiente Resolución, declarará la pérdida del derecho a la percepción de las cantidades pendientes y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades percibidas más los intereses legales que correspondan desde el momento del pago de la subvención, sin perjuicio de las demás acciones que procedan, de conformidad con lo establecido en el Decreto 698/1991, de 17 de diciembre. Las referidas cantidades tendrán la consideración de ingresos públicos a los efectos legales pertinentes, siendo el régimen de responsabilidades el previsto en el artículo 64 del Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

***27. artikulua.***– Dirua itzultzeko prozedura.

Aurreko artikuluan aurreikusitako arauak betetzen ez badira, honako hau izango da jasotako diru-laguntzak itzultzeko prozedura:

a) Gizarteratze zuzendariak prozedura hasi dela eta zergatik hasi den adieraziko dio erakunde interesdunari, eta 15 eguneko epea emango dio egoki iritzitako alegazioak aurkez ditzan. Prozedura hasteak, edonola ere, eten egingo ditu oraindik egin ez diren ordainketak.

b) Alegazioak jaso ondoren edo epe hori alegaziorik aurkeztu gabe igaroz gero, Gizarteratze zuzendariaren ebazpenaz amaiera emango zaio itzultze-prozedurari.

Diru-laguntzak itzultzeko prozedura ebazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez.

Ebazpenean arauren bat bete gabe utzi dela joz gero, diru-laguntza jasotzeko eskubidea galdutzat emango da, eta, hala badagokio, ebazpena jakinarazten denetik hasita bi hilabeteko epean dagozkion diru-kopuruak Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharra deklaratuko da. Borondatezko aldiko epe gisa kontuan hartuko da epe hori.

c) Borondatezko aldian dirua itzultzen ez bada, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Saileko Ogasun eta Finantza Sailburuordetzari jakinaraziko zaio, aplika daitekeen legezko araudiak dioenaren arabera jardun dezan.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

***Lehenengoa***.– Laneratzeko enpresak sortzeko eta mantentzeko agindu honetan aurreikusitako laguntzetarako 2009rako deialdiak egin dira. Aurten eskabideak aurkezteko epea agindu hau indarrean sartzen denean hasiko da, eta 2009ko urriaren 31n amaituko da.

***Bigarrena***.– Agindu honetako helburua betetze aldera bideratutako baliabide ekonomikoei dagokienez, 2009rako gehienez 9.396.290 euro bideratuko dira, honela banatuta: 2009ko ekitaldirako 3.775.242 euroko ordainketa-kreditu baten bidez, 2010erako 2.426.708 euroko konpromiso-kreditu baten bidez, 2011rako 2.370.340 euroko konpromiso-kreditu baten bidez; eta 2012rako 824.000 euroko konpromiso-kreditu baten bidez.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.– Arau indargabetzea.

Esanbidez indarrik gabe utzi dira ondorengo agindu hauek:

***Artículo 27***.– Procedimiento de reintegro.

En los supuestos de incumplimiento previstos en el artículo anterior, el procedimiento para el reintegro de las ayudas percibidas será el siguiente:

a) El Director de Inserción Social comunicará a la entidad interesada la iniciación del procedimiento de reintegro y las causas que lo fundamentan, concediéndole un plazo de 15 días para que formule las alegaciones que estime oportunas. La iniciación del procedimiento suspenderá, en su caso, los pagos que aún queden pendientes.

b) Recibidas las alegaciones o transcurrido el plazo sin que se hubiesen realizado, se pondrá fin al procedimiento por Resolución del Director de Inserción Social.

El plazo máximo para resolver el procedimiento de reintegro será de seis meses.

Si la Resolución estimase la existencia de incumplimiento, declarará la pérdida del derecho a la percepción de la subvención y, en su caso, la obligación de reintegrar a la Tesorería General del País Vasco las cantidades que procedan en un plazo máximo de dos meses, desde la notificación de la Resolución. Este plazo se considerará como plazo de período voluntario.

c) La falta de reintegro en el período voluntario será puesta en conocimiento de la Viceconsejería de Hacienda y Finanzas del Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco, a fin de que se proceda según lo dispuesto en la normativa legal aplicable.

DISPOSICIONES ADICIONALES

***Primera***.– Se convocan, para el año 2009, las ayudas previstas en esta Orden para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción. Para el presente año, el plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas comenzará a contar desde la fecha en que entre en vigor la presente Orden y se extenderá hasta el 31 de octubre de 2009.

***Segunda***.– Por lo que se refiere a los recursos económicos destinados al cumplimiento del objeto de esta Orden, se destinará para el año 2009 un total máximo de 9.396.290 euros, distribuido mediante un crédito de pago para el ejercicio 2009 de 3.775.242 euros, un crédito de compromiso para el ejercicio 2010 de 2.426.708 euros, un crédito de compromiso para el ejercicio 2011 de 2.370.340 euros y un crédito de compromiso para el ejercicio 2012 de 824.000 euros.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA.– Derogación normativa.

Quedan derogadas expresamente las siguientes órdenes:

– 2002ko abenduaren 11ko Agindua, laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituena.

– 2007ko maiatzaren 3ko Agindua, 2002ko abenduaren 11ko Agindua aldatzen duena eta laneratzeko enpresak sortu eta mantentzeko laguntzak arautzen dituena.

AZKEN XEDAPENAK

***Lehenengoa***.– Ordezko araubidea.

Administrazio-prozedurari buruz agindu honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean xedatutakoa aplikatuko da.

***Bigarrena***.– Arauaren garapena.

Gizarteratze eta Familia sailburuordeari ematen zaio agindu hau garatu eta betearazteko behar diren xedapenak hartzeko aginpidea.

***Hirugarrena***.– Errekurtsoak.

Agindu honen aurka badago administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegiko Administrazioarekiko Auzitarako Salan, bi hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.a) eta 46. artikuluetan ezarritakoa betez (Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioa arautzen du lege horrek).

***Laugarrena***.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 4a.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.

– Orden de 11 de diciembre de 2002 por la que se regulan las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción.

– Orden de 3 de mayo de 2007 que modifica la Orden de 11 de diciembre de 2002, que regula las ayudas para la creación y el sostenimiento de las empresas de inserción.

DISPOSICIONES FINALES

***Primera***.– Régimen supletorio.

En lo no previsto en esta Orden en relación al procedimiento administrativo será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

***Segunda***.– Desarrollo reglamentario.

Se faculta al Viceconsejero de Inserción Social y de Familia para adoptar las disposiciones necesarias para el desarrollo y ejecución de la presente Orden.

***Tercera***.– Recursos.

Contra la presente Orden cabe interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses contados desde el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco conforme a lo establecido en los artículos 10.1.a) y 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

***Cuarta***.– Entrada en vigor.

La presente Orden entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 4 de mayo de 2009.

El Consejero de Justicia, Empleo y Seguridad Social,
JOSEBA AZKARRAGA RODERO.